



UMETOKIAN LEBONORGESTRELA ASKATZEN DUEN DIU GAILUA JARTZEKO BAIMEN INFORMATUA

CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA LA INSERCIÓN DEL DISPOSITIVO INTRAUTERINO DIU LIBERADOR DE LEVONORGESTREL

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
..... Data:

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:

B. INFORMAZIOA:

- Zer egiten dute DIU hormonal horiek?
T itxurako objektu txiki batzuk dira. Umetokian jartzen dira, eta hormona bat askatzen dute hor barruan. Hainbat ondorio eragiten dituzte: murriztu egiten dute umetokiaren barne-estaldura, inhibitu egiten dute espermatozoideen mugimendua, eta loditu egiten dute umetokilepoko mukia. DIU gailua 3 edo 7 urtez izaten da eraginkor modeloa zein den. EZ DUTE BABESTEN sexu-transmisiozko gaixotasunetatik. METODO ANTISORGAILU GISA EZ EZIK, UMETOKI BARNEKO TRATAMENDU GISA ERE ERABIL DAITEZKE (GESTAGENOEKIN).
- Noiz eta nola jartzen dira?
Zikloaren edozein unetan jar daitezke; dena den, hilekoa izan bitartean jartzea da egokiena. Batzuetan, min pixka bat ematen du gailua jartzeak –hilekoak ematen duen minaren antzekoa–, baina emakume gehienek inolako arazorik gabe jasaten dute. Kontsulta ambulatorioan jartzen dira. Batzuetan, dilatazio txiki bat egin behar izaten da hodi zerbikalean, DIU sartzeko erabiltzen den hodia pasatzeko; horrelakoetan, noizbehinka anestesiko lokal bat jartzen da. Gutxi batzuetan, erreakzio arinen bat eragin dezake (tentsioa jaitea, zorabioa, eta abar), baina berehala pasatzen da.

Antisorgailu gisa duen eraginkortasuna:

Oso antisorgailu eraginkorra da. Hala ere, haurdun geratzeko arrisku txiki bat dago (gutxi gorabehera, urtean % 0,1).

B. INFORMACIÓN:

- Mecanismo de acción de DIU hormonal:
Es un pequeño objeto en forma de T que se coloca dentro del útero y libera una hormona a su interior. Actúa de varias formas: reduce el revestimiento interno del útero, inhibe el movimiento de los espermatozoides, y espesa el moco cervical. La duración de los efectos del DIU hormonal es de 3 a 7 años, dependiendo del modelo. NO protege de las enfermedades de transmisión sexual. PUEDEN SER USADOS, NO SOLO COMO METODO ANTICONCEPTIVO, SINO COMO TRATAMIENTO INTRAUTERINO CON GESTAGENOS.
- Características de la inserción:
Se puede colocar en cualquier momento del ciclo, aunque se aconseja su inserción durante la menstruación. La inserción puede resultar algo dolorosa en algunas mujeres, similar al dolor menstrual, siendo casi siempre tolerable en la mayoría de las mujeres. La inserción se realiza en una consulta ambulatoria. En algunos casos, es necesario realizar una pequeña dilatación del conducto cervical para permitir el paso del tubo introductor del DIU, y en ocasiones, se recurre a la administración de un anestésico local. Raramente puede aparecer una reacción vagal (bajada de tensión, mareo, etc.), siempre pasajera.
Eficacia anticonceptiva:
Tiene elevada eficacia contraceptiva, aun así, existe un riesgo de embarazo en aproximadamente un 0,1% al año.



C. ARRISKUAK ETA ARAZOAK:

- Odoljarioari dagokionez:
Aurreneko hilabeteetan, tarteka, odoljario txiki irregular batzuk izan litezke. Gehienetan, beren kabuz desagertzen dira, ezer berezirik egin gabe.
Gerora, odol gutxiago isurtzen da hilekoan, eta, gailua jartzen denetik urtebetera, batzuetan, hilekoa etorri ere ez da egiten eta DIU duten emakumeen % 6 - 20ren kasuan. Horrek ez du osasunaren aldetik inolako arriskurik; besterik gabe, metodoaren mekanismoaren ondorio da.
- Albo-ondorio posibleak:
Albo-ondorioak gailua jarri eta aurreneko hilabeteetan izaten dira gehienbat, baina, denborarekin, desagertu egiten dira. Gehien gertatzen direnetatik gutxien gertatzen direnetera sailkatuta: buruko mina, behe-abdomeneko mina, bizkarreko mina, azalean alterazioak, baginako fluxua, bularretan tentsioa, umore-aldaketak, goragaleak. Gutxi batzuetan, pisua hartzea, ilea galtzea, ilean sebo gehiegi jariatzea eta hirsutismoa (gorputzean ile gehiegi sortzea). Noizean behin, kiste folikular funtzional txikiak sor litezke obulutegietan; normalean, hilabete batzuren buruan beren kabuz sendatzen dira.
- Kontrol eta gomendioak:
Gailua jarri eta 4-12 astera, berrikuspen bat egin behar da; beharrezkoa izanez gero, lehenago ere bai. Geroztiko berrikuspenak berrikuspen ginekologiko protokolizatuetan egin beharko dira.
- Konplikazio posibleak:
Sartzeko zailtasuna, odoljarioa, infekzio inflamatorio pelbikoa, haurdunaldia –ektopikoa izan daiteke–, kanporatzea, gailua kentzeko zailtasuna, eta, oso noizean behin, umetokia zulatzea –mila kasutik behin, gutxi gorabehera–

OSPITALEAK BEHAR DIREN BALIABIDE GUZTIAK JARRIKO DIZKIZU ESKURA GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIO HORIEI AURRE EGITEKO.

C.- RIESGOS Y COMPLICACIONES:

- Cambios en el patrón de sangrado:
Durante los primeros meses de uso pueden producirse pérdidas leves intermitentes, más o menos continuas e irregulares que se resuelven espontáneamente.
Posteriormente, se produce una reducción en la cantidad de flujo menstrual y, en aproximadamente un 6% - 20% de las mujeres, tras un año de utilización la menstruación desaparece por completo. Este hecho no entraña riesgo para su salud y se debe al mecanismo de acción del método.
- Posibles efectos secundarios:
Son más frecuentes durante los primeros meses de inserción y desaparecen con el tiempo. En orden de frecuencia: dolor de cabeza, dolor abdominal inferior, dolor de espalda, alteraciones de la piel, flujo vaginal, tensión mamaria, cambios de humor, náuseas. Otros como, aumento de peso, pérdida de cabello o exceso de secreción sebácea en cabello e hirsutismo (desarrollo excesivo de vello corporal), se han comunicado en casos individuales. No es infrecuente que se puedan producir pequeños quistes foliculares funcionales en los ovarios, de resolución espontánea en unos meses normalmente.
- Controles y recomendaciones posteriores:
Debe efectuarse una revisión post inserción a las 4 - 12 semanas, o antes si fuera necesario. Las revisiones posteriores coincidirán con las revisiones ginecológicas protocolizadas.
- Posibles complicaciones:
Dificultad durante la inserción, sangrado inter menstrual, infección inflamatoria pélvica, embarazo (y, si ocurre, puede ser un embarazo ectópico), expulsión, dificultad para la extracción y, muy excepcionalmente, perforación uterina (aproximadamente 1 de cada 1.000 inserciones).

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.



D. JAKINARAZI:

Arriskuen edo konplikazioen maiztasuna eta larritasuna handitu ditzaketenez, beharrezkoa da hurrengo hauek jakinaraztea: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren aldaketak, gaixotasun kardiopulmonarrak, protesirik baduzun, egun hartzen dituzun medikamentuak eta antzekoak. Haurdun zauden edo haurdun zaudela uste duzun jakinarazi behar diguzu.

E. PERTSONA BAKOITZAREN ARABERAKO ARRISKUAK:

Baliteke pertsona bakoitzaren ezaugarri bereziek eta gaixotasunek (diabetesa, hipertentsio arteriala, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna eta larritasuna handitu ditzakete. Medikuek zure kasuan izan daitezkeen arriskuak jakinarazi dizkizu.

F. ORDEZKO AUKERAK:

Ahotiko antisorgailuak, preserbatiboak, diafragma, metodo «naturalak», tronpak lotzea, basektomia...

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa: interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. Tratamendu HISTORIKO KLINIKOaren helburua da pazientearen historia klinikoko datuak izatea, haren jarraipena egiteko eta asistentzia-jarduera kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betez. Datuak jakinaraz dakizkieke Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, GSINi, agintaritzak judizialei eta aseguru-erakundeei. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetza osasun-langileek emandakoak dira. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara:

<http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>

D.- AVISENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones. Es necesario que nos comunique si está embarazada o cree que pudiera estarlo.

E.- RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F.- ALTERNATIVAS:

Anticonceptivos orales, preservativos, diafragma, métodos "naturales", ligadura de trompas, vasectomía...

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>.



DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El Paciente

Pazientearen izen-abizenak

Nombre, dos apellidos

Sinadura eta data

Firma y fecha

Medikua/EI/La Médico

Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

Sinadura eta data

Firma y fecha

Legezko Ordezkaria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante legal: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad

Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

Sinadura eta data

Firma y fecha

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal

Adierazitako prozedurapean **EZ JARTZEAREN** irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.

Comprendo el alcance y los riesgos de **NO SOMETERME** al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento.

<.....>

Sinadura eta data

Firma y fecha